

Bazkide agurgarriok:

2016ko Osatzen Jardunaldietarako atzerako kontaktarekin hasten gara. Hilabete asko egon gara berauek antolatzen, oposaketak bezalako gehigarriekin batera.

“Ustekabe” hauen ondorioz, datak atzeratzera behartuta egon ginen eta azkenik, Jardunaldiak **martxoaren 10 eta 11n, osteguna eta ostirala**, Bizkaiko Medikuen Elkargoko egoitzean izango dira.

Laster programa eta izen-emate epea agertzen diren Jardunaldietako web orria iragarriko dizuegu.

Gutun honen bidez, eta hasiera gisa, gure kezkak zeintzuk diren eta Jardunaldietako hari eroalearen izaera zein den jakinarazi nahi dizkizuegu.

Osatzen, semFYC-eko federatutako erakunde zientifikoa izateaz harro dago, baina hau ez da oztoporik, erakunde honen funtzionamendu klasiko batzuk barrutik aldatzen saiatzeko. Hori dela eta, Osatzenekook gauzak beste modu batera egiteko ahaleginetan dihardugu aspalditik.

Gaur egun familia-medikuen arteko erlazioa nolakoa izan behar duenetik hurbilagoa, beste espezialitate batzuetako lankidekin, paziente berarekin, edo osasun mundua gero eta gehiago inguratzen duen industriarekin: botikena, teknologiena, elikadurarena... bizitzaren parte diren prozesuak medikalizatuz. Zentzu honetan, [Osatzen erakunde zientifikoa](#) izanik, [industriaren laguntza barik](#) antolatzen diren jardundiak, kongresu eta prestakuntzak defendatu eta bultzatzen ihardun gara azken urteotan.

Ohiko jardunaldi eta biltzarren ereduak aldatu nahi ditugu. Klase magistralen garaia pasatu dela uste dugu eta egungo gizarteak eskatzen dituen berdinen arteko eztabaidei ongi etorria emoteko garaia dela. Ekarpen aberats eta anitzak estimulatu, suspertu eta eragin.

Halaber, gure topaketen gaiak aldatu bahar direla uste dugu eta **klinika hutsak** eguneroko lanean **ezinbestekoak diren gaiekin batera partekatu behar duela**. Kalitatezko arreta eskaintzeko, familia -medikuak ikuspegi orokorra behar du izan, zentzu zientifikoaz gain, kultur-sentikortasuna eta gizarte konpromisua adiraziz.

Aldaketa- garaian bizi gara, non desberdintasun sozialek zelatatzen gaituzten eta Unibertsal, Doako eta Kalitatezko Osasunarako eskubidea bezalako balioak zalantzan jartzen diren.

Zentzu honetan, Osatzen 2016ko Jardunaldietan hainbat gai jorratu nahi ditugu baina beti honako hauek kontuan izanez: OROIMENAREN BERRESKURAPENA ETA AHAZTUEN ERREBINDIKAZIOA , NONDIK GATOZEN AITORTU ETA GOGORATZEKO GARRANTZIA norantz joan nahi dugun jakiteko.

Prekarioak, etorkinak, kanpo utzitakoak, gure nagusiak, ikasleak, etxez etxeko Arreta, Erkidego-Arreta, LEHEN MAILAKO ARRETA... Hainbeste eta hainbeste ahaztu... Oroimenaren ordua da, gogoratzekoa. Nortzuk garen. Nondik gatozen. Nora joan nahi dugun. Gure garrantzia zertan datzan. Non gure indarra... Jardunaldi hauek ez dira edozein jardunaldi izango, ezin baitira edozein Jardunaldi izan.

Adi egon eta gerrikoak lotu.

OSATZEN 2016ko JARDUNALDIETARAKO atzerako kontaketa hasten baita.